

Arrasatek kultur etxera bisitak jarriko ditu abian

Arrasate. Kultur etxe berriko lanak amaitzear daude eta Udalak bisita gidatuak martxan jartzea erabaki du. Jon Garai kultura teknikariak azaldu zuenez, "orain, eraikina ekipamendu gabe dago eta herritarrek leku guztiak bere osotasunean ikus ditzakete". Era honetan, arrasatearrek azken lau urteotan egindako lana ezagutu ahal izango dute, "beranduago, ekipatuta dagoenenean, zenbait espazio ezingo dituzte ikusi, adibidez, gure bulegoak edo liburutegiaren gordailua", gaineratu zuen Garaik.

Bisita hauetan parte hartu nahi dutenek, Maisu Aranan kokatuta dagoen Biztanleen Arreta Zerbi-tzuan (BAZ) izena eman beharko dute, astelehenetik aurrera. Aran-tza Otadui historialari arrasatearrak gidatuko ditu hilaren 26an abian jarriko dituzten ibilaldi hauek, eta ikus-entzunezko proiektioaz gain, eraikinaren gelatan zehar ere ibiliko dira. >a.d.